

UNICEF EUSKAL
HERRIKO BATZORDEA

unicef 
haurtzaro bakoitzarentzat

2023-2024

Zer uste dute haurrek eta nerabeek?

HAURREN ETA NERABEEN IRITZI BAROMETROAREN
LAUGARREN EDIZIOAREN EMAITZAK



Edizioa:

UNICEF Euskal Herriko Batzordea
Iparragirre kalea 9-1
48009 Bilbo

Egileak:

Pilar Ramos Valverde
Sara Luna Rivas
Francisco José Rivera de los Santos
Carmen Moreno Rodríguez
Eva Leal López
Esther Ciria Barreiro
Dolores Majón Valpuesta
Concepción Moreno Maldonado
Ana María Villafuerte Díaz
Sheila Velo Ramírez
Vanesa Salado Navarro

Koordinazioa:

Sílvia Casanovas

Ekarpenak:

Lara Contreras, Adriana Negueruela
Eragin, Programak eta Aliantza Zuzendaritza
UNICEF Espainia

Diseinu grafikoa

Rex Media SL

2024ko abendua

Dokumentu hau nola aipatu: Ramos, P., Luna, S., Rivera, F., Moreno, C., Leal-López, E., Ciria-Barreiro, E., Majón-Valpuesta, D., Moreno- Maldonado, C., Villafuerte-Díaz, A., Velo-Ramírez, S. y Salado, V. (2025). Zer uste dute haurrek eta nerabeek Haurren eta nerabeen iritzi barometroaren laugarren edizioaren emaitzak, 2023-2024. UNICEF Espainia.

Esker onak

Eskerrak eman nahi dizkiegu UNICEF Espainia aholkularitza-taldeari eta ikerketan parte hartu duten guztiei, beren ikastetxeen laguntzarekin.

Sarrera

Haurren eta Nerabeen Iritzi Barometroa izeneko ikerketa UNICEF Espainiak sustatu du, eta Sevillako Unibertsitateko ikerketa-talde batek garatu.

Haurrek eta nerabeek aldaketarako eragile gisa duten gizarte-partaidetza sustatu nahian, barometroak Haurren Eskubideei Buruzko Konbentzioak (HEK) jasotzen dituen eskubideak, beren bilakaera-garapenaren aintzatespena haurren eta nerabeen iritziak entzuteko eta gizarte-ezagutza eta inplikazio zibikoa sustatzea nabarmentzen ditu.

2019-2020ko lehen ediziotik eta lau ediziotan zehar, ikerlan honen xede nagusia izan da Euskadiko eta Espainiako gazteek gizarte- eta politika-gaien inguruan dituzten iritziak eta kezak, beren konpromiso zibikoa eta gizarte-inplikazioa, genero-estereotipoak eta ongizate-maila emozionala eta poztasuna jakitea ahalbidetzen duen instrumentu bat sortzea eta eguneratzea.

Estatu mailan, 11 eta 18 urte bitarteko 15.070 haur eta nerabek parte hartu dute, guztira, Haurren iritzi barometroaren laugarren edizioan.

Euskal Autonomia Erkidegoan 897 neska-mutilek parte hartu dute.

1. TAULA. Partaideen banaketa generoaren, adinaren, familiaren erosteko ahalmenaren eta jatorriaren arabera


EUSKADI		Maiztasuna	Portzentajea
Guztira	897 nerabe	897	100,0
Generoa	Mutila	444	49,5
	Neska	432	48,2
Adin-tartea	11-12 urte	282	31,4
	13-14 urte	279	31,1
	15-16 urte	250	27,9
	17-18 urte	86	9,6
Familiaren erosteko ahalmena	Baxua	141	15,7
	Ertaina	437	48,7
	Altua	106	11,8
Espainian jaioa al zara?	Bai	820	91,4
	Ez	77	8,6

1


GIZARTE-KEZKAK

Kezka hauek detektatu ahal izateko, beren ustez Espainiako gizartea gehien kezkatzen duen arazoa zein den esatea eskatu zaie haur eta nerabeei (1. Grafikoa); bestalde, 2. Grafikoak haurrak eta nerabeak gehien kezkatzen dituen gaiaren inguruko emaitzak jasotzen ditu. Erantzun guztiak berez eman dituzte. Azkenik, 3. Grafikoak jasotzen du zerrenda batean jasotako kezka ezberdinei partaideek eman dieten lehentasuna.


1. GRAFIKOA. Gizartea gehien kezkatzen duen arazoa (berezko erantzuna)



2. GRAFIKOA. Haurrak eta nerabeak gehien kezkatzen dituzten gaiak (berezko erantzuna)



3. GRAFIKOA. Gai zehatzen inguruko kezka-maila




2

GIZARTE- ETA POLITIKA-GAIEN
INGURUKO IRITZIA


Landutako beste gai batzuk izan dira herrialdearen egoera politiko eta ekonomikoaren inguruan duten iritzia (4. Grafikoa), bai eta toki-mailako egoeraren ingurukoa ere (5. Grafikoa). Instituzioen eta gizarte-taldearen arteko konfiantza-maila identifikatzeko, haurrek eta nerabeek kategoria ezberdinak lehenetsi dituzte, 7. Grafikoak azaltzen duen moduan, eta ogibide ezberdinen inguruko beren balorazioa ere eman dute (8. Grafikoa).

Politikariengan konfiantzarik ez izateko haurrek eta nerabeek dituzten arrazoiak sakondu ahal izateko, gizarte-talde horri 5 puntutik beherako balorazioa eman ziotenak beste galdera bat erantzun behar izan zuten, horren zioak azalduz; emaitzak 6. Grafikoan ikus daitezke.


4. GRAFIKOA. Nola kalifikatuko al zenuke Espainiako egoera politiko-ekonomiko orokorra?




5. GRAFIKOA. Nola kalifikatuko al zenuke zure udalerriko egoera politiko-ekonomikoa?




6. GRAFIKOA. Politikariengan konfiantzarik ez izateko arrazoiak



HAURREN ETA NERABEEN IRITZI BAROMETROA 2023-24 • EUSKADIKO DATUAK



8. GRAFIKOA. Ogibideen balorazioa



3


KONPROMISO ZIBIKOA ETA GIZARTE-INPLIKAZIOA

Gizarte- eta politika-gaietan (eskola-antolaera eta -funtzionamendua edo elkartetako kide izatea, adibidez) haurrek eta nerabeek azken 12 hilotan zer nolako maiztasunarekin parte hartu duten aztertu da. Erantzuteko aukerak ondokoak ziren: Inoiz ez; bai, behin; bai, bitan edo gehiagotan. Jarduera-motaren arabera erantzun-patroi ezberdinak daude, 9. Grafikoak erakusten duen bezalaxe.


Bestalde, eta 10. Grafikoan adierazi bezala, etorkizunean parte hartzeko edo inplikatzeko interesatzen zaizkien jarduerak adierazi dituzte haurrek eta nerabeek.

Gaurkotasun-gaien inguruko informazioa eskuratzeko dituzten moduak eta ekintza ezberdinak zer nolako maiztasunarekin gauzatzen dituzten ere galdetu zaizkie; erantzuteko aukerak ondokoak ziren: inoiz ez edo ia inoiz, hileroko, astero eta egunero edo ia egunero. Lortutako emaitzak 11. Grafikoan jaso dira.


9. GRAFIKOA. Egungo partaidetza gizarte- eta politika-gaietan



10. GRAFIKOA. Etorkizunean gizarte- eta politika-gaietan parte hartzeko aukerak



11. GRAFIKOA. Gaurkotasun-gaien inguruko informazioa maneiatzea




4


GENERO-ESTEREOTIPOAK

Ogibide ezberdinen inguruko genero-estereotipoak aztertu ahal izateko, sei profil profesional zehatz zeintzuek gauzatu beharko lituzketen galdetu zitzairen haur eta nerabeei: haurrak zaintzea, etxeak garbitzea, gaixoak sendatzea eta zaintzea, enpresak kudeatzea (12. Grafikoa). Horrez gain, nortasun-ezaugarri batzuei loturiko genero-estereotipoak ere ebaluatu dira; horretarako, izaera zehatz batekoa zeinek izan beharko lukeen edo jokabide zehatz bat zeinek izan beharko zuen galdetu zitzairen, 13. Grafikoa ikus daitekeen bezalaxe.

12. GRAFIKOA. Ogibideei loturiko genero-estereotipoak



13. GRAFIKOA. Nortasun-ezaugarri ezberdinei loturiko genero-estereotipoak




5

ONGIZATE EMOZIONALA
ETA POZITASUNA

Haurren eta nerabeen ongizate emozionala ebaluatzeko, dimentsio ezberdinak hartu ziren aintzat. Dimentsio horiek ondoko alderdiak hartu zituzten barne: ongizate fisikoa (indarrez eta forman sentitzea), ongizate psikologikoa (arreta/kontzentrazioa, bakardadea edo tristura bezalako sentimenduak ez izatea, aske sentitzea aisialdian), harremanak familiarekin eta lagunekin eta azken astean izan duten gaitasun kognitiboaren, ikasteko eta kontzentratzeko ahalmenaren inguruko hautematea. Lortutako emaitzak 14. Grafikoan ikus daitezke.

Haur eta nerabeei poza zerk ematen dien jakiteko, zerrenda batean jasotako 13 faktoreak 0 eta 10 bitarteko eskala bat erabiliz baloratzea eskatu zitzaion (15. Grafikoa).

14. GRAFIKOA. Ongizate emozionalaren osagai ezberdinen analisia



15. GRAFIKOA. Osagai ezberdinen eragina haur edo nerabearen poztasunean

